

15 NEURRI, UDALERRIETAN EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA SUSTATZEKO

Euskal Herrian ere, ESEko ekimenak sendotzea eta zabaltzea ezinbestekoa da harreman ekonomiko guztiak eraldatzeko, ekonomia globalki demokratizatzeko, gizartea kooperatibizatu eta eredu sozioekonomiko postkapitalistetarantz aurrera egiteko.

Tokiko demokrazia ekonomikoaren bultzada.

Tokian tokitik, gizarte-erlaketarako ekonomia bat.

Kataluniako Ekonomia Solidarioaren Sarea (XES) osatzen duten ekimenez, bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako ekonomia eta giza premiak ekitatez asetzeari abiapuntutzat hartuta, jarduera ekonomikoa, tokiko errotzea eta eraldaketa soziala beste modu batean lantzen ari dira gero eta udalerrri kataluniar gehiagotan. Sozialki justua den ekonomia bat, politikoki emantzipatzailea, klasearen, generoaren, jatorriaren edo aukera sexualaren arabera desberdintasunen aurkako borrokarekin konprometitua dagoen ekonomia bat. Lurraldean sustraitutako ekonomia bat, aniztasun ekonomiko eta kulturala sustatzen duena, ingurumenarekiko errespetuzkoa. Ekonomia Sozial Eraldatzailea.

Herrialde osoan zehar, milaka ekimen sozioekonomiko autokudeatu jarduera ugari gauzatzen ari dira modu demokratikoan: produkzio-prozesuak, trukea, kudeaketa, soberakinen banaketa, moneta, kontsumoa edo ondasun eta zerbitzuen finantzaketa. Ekonomia Sozial Eraldatzaileko (ESE) ekimen hauek elkartasunezko harreman eta autokudeaketaren bidetik talde-premiak asebetetz, ekonomia eta gizartearen berdintasunezko eraldaketan eragiten dute; naturaren, kulturaren eta mundu digitaleko ondasun komunak defendatzen dituzte, eta bizi onari eta emantzipazio kolektiboari ekarpena egiten diote.

Euskal Herrian ere, ESEko ekimenak sendotzea eta zabaltzea ezinbestekoa da harreman ekonomiko guztiak eraldatzeko, ekonomia globalki demokratizatzeko, gizarte kooperatibizatu eta eredu sozioekonomiko postkapitalistetarantz aurrera egiteko.

Helburu horiekin, eta 2015ean proposatu zituzten 14 neurrien ezarpena balioztatu ondoren, 2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskunderi begira, Ekonomia Sozial Eraldatzailea herrietan sustatzeko 15 neurri osatutako proposamena plazaratu dute eta Euskal Herrira ere ekarri dugu. Ekonomiaren demokratizazioan eta transizio kooperatibo, ekologiko eta feministan oinarrituriko proposamen honek tokiko komunitateen barne antolaketa ekonomikoa eta lurraldeen indartze sozioekonomikoa sustatzeko prozesuetan parte hartu nahi duten tokiko entitate eta hautagaitzentzat erabilgarria izatea du helburu.

1. Ekonomiaren matrize berri bat bultzatzeak aldaketaren eragile sozioekonomiko guztien ekarpena behar du.

Ekonomia Sozial Eraldatzaileko Tokiko Kontseiluak, edo udalerrri txikietan lan-taldeak, sortzea proposatzen dugu. Bertan, tokiko eta sektoreko ESEko ekimen, auzo-elkarte, talde ekologista, kultura talde, hezkuntza arloko eragile, talde feminista eta migratutako pertsonen erakundeez gain lantzen diren gaietan ardura duten tokiko administrazioaren ordezkariak parte hartuko lukete.

Organo honek ekonomiaren trantsizio demokratiko, ekologiko eta feministara bideratutako tokian tokiko politika ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak eta kulturalak sustatzearen ardura izango du, betiere elkarlan publiko-kooperatibo-komunitarioaren paradigman oinarriturik. Ondorengo lanen ardura izango du:

- Tokian tokiko ESEaren diagnostikoa egitea eta eguneratzea.
- ESEaren Plan Zuzentzailea diseinatzea: integrala eta udal-mailakoa, aurrekontuan diru-hornidura zehatzarekin, ebaluazio-mekanismoak eta adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak dituen.
- Urteko memoria egitea eta sor daitezkeen gatazkak bideratzeko, prestakuntza mistoko eragile publiko-kooperatibo komunitarioez osatutako bitartekaritza-zerbitzu komunitarioa sortzea.

2. Tokiko eraldaketa sozioekonomikoa gauzatzeko, tresna egokiak behar dira.

Ahal den udalerrri guztietan, Tokiko Garapen Sozioekonomikoko Agentziak sortzea edo ekonomia sustatzeko dauden erakundeak ESEaren berariazko sustapenera bideratzea proposatzen dugu, bai eta ESEa udal-politika guztietan zeharkako lan-ildo bezala barneratzea ere. Erakunde hauek Plan Zuzentzailea eta bere programak ezarri beharko dituzte, gizartearen parte-hartzea sustatu, tokiko ekimen sozioekonomikoen erregistroa abian jarri eta tokiko edo eskualdeko beste agentzia batzuekin eta lurralde bakoitzeko ESEaren sustapen sareekin elkarlan- eta koordinazio-esparruak sustatuko dituzte. Udal-administrazioak lanketa berezia egingo du udalerriko desberdintasun sozioekonomikoak lehengoratzeko, eta horretarako, talde espezifikoek laguntza ekonomikoa, teknikoa eta prestakuntza emango zaie -emakumeak, pertsona migratuak eta 45 urtetik gorakoak- ESEko proiektuetan berdintasun baldintzetan sar daitezzen.

3. Gertuko sustapen ekonomikorako espazioak

Agentziak, ahal den neurrian, ekipamendu publiko bat gaitu beharko du. Bertan egoitza ezartzeaz gain, jendeari arreta eskaini, berezko edo tokiko erakundeentzako prestakuntza-programak garatu, eta lankidetzaren proiektuen mintegi gisa egokitzeak aukerak eskainiko lirarteke. Tokiko sustapen sozioekonomikoko zentro hauek, udalerrriaren arabera, auzo, barruti, herri edo eskualde izaera izan dezakete. Horrez gain, menpekotasuna duten pertsonen zainketen kudeaketa kolektiboa sustatzeko azpiegitura, laguntza eta aholkularitza eman beharko dituzte. Horretarako, ahal den

udalerrri guztietan, parte hartzen duten pertsonen beharrekin eta erritmoekin bat datozen zaintza-guneak sortuko dituzte. Era berean, hurbileko sustapen ekonomikorako guneak udalen arteko eta eskualdeko kontseiluen bidez sustatu ahal izango dira.

4. Ondare kolektiboaren kudeaketa kooperatiboa edota komunala

ESEren ekimenentzat ondare publikoa eta hiri- eta landa-ondasun komuna zabaltzea, lagatzen denetik aurrera zehaztu ahal izango da, tokiko ESEren erabilera eta kudeaketarako. Laga daitezkeen ondasunak hauek izan daitezke: eraikinak, merkataritza-lokalak, industrialdeak, etxaldeak, baserriak, hiri-/herri-lurrak. Horretarako, batetik, udalerrietan erabiltzen ez diren ondasun higiezin publikoak eta pribatuak inbentariatu beharko dira. Bestetik, hitzarmenak ezarri beharko dira - finantzaketa elkartu moduan- ESE ekimenak birlokalizatzeko. Horrela, beraien jarduera propioa hedatzea edota proiektu kooperatibo eta komunitario berrien sorrera eta sendotzean laguntzeko programa mankomunatuak sortzeko aukera egongo da, ondasun horiek ekoizpen-erabilerarako (tailerrak, inkubatze-espazioak, biltegiak, lantegiak, FabLab-ak (fabrikazio pertsonalerako guneak), nezakaritzarako testatze-espazioak) zein erreproduktzio-erabilerarako (zaintza-espazioak) bideratuta. Era berean, garai bateko tokiko ondasun kooperatiboa eta asoziatiboaren berreskuratzea, berriztapena eta mantenua sustatuko da titulartasun publikorako eta ESEko ekimenei lagatzeko.

5. Aldaketa sozioekonomikoa bermatzeko, epe luzerako kultura- eta hezkuntza-aldaketa landu behar da.

Udalerriek programa propioak bultzatu behar dituzte, eta pertsonen prestakuntza-gaitasunak garatzen dituzten ekonomia eraldatzaileko ekimenen programei lagundu, bai hezkuntza-sisteman, bai beste batzuetan. Ikastetxeei dagokienez, ikasleen kooperatibak era guztietako zentroetan sortzea sustatuko da, eskumena duten udalerrietan, eta, era berean, ESE lanbide-heziketan sartzea bultzatuko da. Prestakuntza-programek hainbat gaitasun-ildo izan beharko dituzte: tekniko eta administratiborako bat (kudeaketa ekonomikoa, finantzarioa, merkataritzakoa, lanekoa), sozietate-gaikuntzarako beste bat (governantza demokratikoa, gatazken ebazpena, etab.) kooperatiba-balioen eta -praktiken hezkuntzarako beste bat (ekimenen hurbilketa ESEra, balioak eta kultura, ingurune-hezkuntza, genero-berdintasuna, antiarrazismoa, tokiko zein kanpoko memoria kooperatiboaren eta asoziatiboaren ezagutza). Arlo eta ezaugarri horien inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza udaleko langile tekniko eta politikoei ere zabalduko zaie.

6. Ekimen sozioekonomiko berriei aholkularitza, prestakuntza eta akonpainamendua

Publiko orokorrari zuzendutako programez gain, ekimen sozioekonomiko berrien aholkularitza, prestakuntza eta akonpainamendurako berariazko programak bultzatu behar dira, bai eta lehendik daudenak finkatzea ere, batez ere, enplegua sortzen dutenak eta ondasun komunak mantendu eta hedatzen dituztenak, horiek

baitira, besteak beste, genero-ekitatea eta etorkinen eskubideak bermatzen dituztenak. Aholkularitza- eta inkubazio-zerbitzuez gain, finantzaketara atzipena erraztu behar da, finantza etikoen sistematik abiatuta. Genero-ikuspegitik begiratuta, erantzunkidetasunerako, gatazken kudeaketarako eta zainketarako prozedurak ezarri behar dira. Etorkinei dagokienez, berriz, erakunde publikoen arteko lankidetzak beharrezkoa izango da, esaterako enplegu-zerbitzuen eta migratzaileen harrera egiten dutenen artean, kooperatibak beraien erregularizazio, enplegu-sorrera eta jarduera ekonomikorako aukera bideragarri bezala sustatzeko. Horrez gain, tokiko kudeatzaileekin lan espezifikoak egin behar da, migratzaileak gaitzeko eta proiektu kolektibo berri eta sozioenpresarialetarako eredu kooperatiboa gomendatzeko. Udal enplegu-zerbitzuak berbideratu behar dira, ESEren baitako enplegagarritasun-zirkuituak sortzeko. Horretarako, udalerriko ekonomia-sektoreen balio-kateak aztertu eta, gizarte-zerbitzuen bidez, langabezia dauden edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen lan-beharrei irtenbide bat emateko laguntza eman behar zaie. Azkenik, ESEren printzipioetara hurbiltzen diren eta gertutasun zein erantzunkidetasun sozialaren printzipioekin dabiltzan enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen arteko bateratasuna sustatu behar da, hurbileko ekonomia-ehuna aldaketaren subjektu bihurtu dadin, eta tokiko ESE matrizearen parte izan dadin. Sentsibilizazio honetarako, baliagarriak dira Balantze Soziala, Erakide edo Batura bezalako tresnak.

7. Finantzazioa erraztea finantza etikoen sistema integral baten bidez, eta kredituaren birlokalizazioa sustatzea

ESEko proiektuek finantzazio etiko edota kooperatiboen bidez, finantzaketa eskuratu ahal izateko baldintzak erraztu egin behar dira. Zentzu horretan, udalerriko batzuen ereduari jarraituz, udalek lankidetzak-hitzarmenak sinatu eta garatu ahal izango dituzte finantza-erakundeekin arriskuak partekatzeko berme-funtsak eratzeko. Era berean, kooperatiben kapitalizazioa sustatzen duten programak sustatu daitezke, erakunde horien finantza-egiturak indartzeko, finantzaketa eskuratu ahal izan dezaten posizio indartsuago batzuetatik. Bestalde, administrazioak zerga-inpaktu positiboa duten proiektuen aldeko fiskalitatea sustatu dezake, pizgarri eta onura fiskalak bultzatuz. Horrez gain, *matchfunding* prozesuak (crowdfunding-a erantzunkidetasun-irizpideen baitan) bultzatuz finantzaketa kolaboratibo prokomuneko ekimenekin, baita finantza komunitarioko ekimenei zein autofinantzatutako komunitateei laguntza eman ere. Kredituaren birlokalizazio baterako, berriz, ehun sozialetik, tokiko aurrezki eta kreditu kolektiborako funtsen sustapena egin daiteke, tokiko aurreztaileak laguntza finantzarioen antolaketan demokratikoki inplikaturik, batez ere, mikroredituetan. Funts horiek finantza etiko, solidario eta eraldatzailearen sistemarekin koordinatuta egon behar dute, beren jarduera osatu ahal izan dezaten, tokiko dinamizazio-lana bere gain hartuta, ekonomia sozial eraldatzaileko ekosistema aberatsagoak garatzeko.

8. Interkooperazioa, Tokiko Merkatu Soziala eta kontsumo arduratsua babestea

Tokiko marko sozioekonomiko berri bat ez da lurralde jakin bateko ekimenen batura metatzailea, tokiko ESE ekimen guztien integrazio ekonomikorako proiektu estrategiko baten emaitza baizik. Ondorioz, Tokiko Merkatu Sozial eta Ekologikoa bultzatzeaz gain, proiektuen arteko hartu-eman dentsitatea eta interkooperazioa sustatu behar dira. Nola? ESE eta tokiko nekazaritzako merkatu ekologikoetako tokiko edo eskualdeko azokak babestuz, **lurraldeko kooperatiba-poloak** sortuz eta **ekoizpen-kate eraldatzaileak** (ekoizpena, banaketa, kontsumoa) sustatuz, ekonomia eraldatzaileko tokiko sareak onartuz eta sostengatuz. Integrazio horretan, juridikoki formalizatutako ekimenak saretu ahal izango dira (kooperatibak, elkarteak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, lan-sozietateak, fundazioak), baina formalizatu gabeko beste lankidetzeta mota batzuk ere sartu ahal izango dira, hala nola, agroekologia-ekimenak, komunitate-baratzeak, mikrofinantzak, kreditu kolektiboko funtsak, ondasun eta zerbitzuen trukerako sareak, denbora bankuak, txanpon sozialak, autogestioan eta kudeaketa komunitarioan oinarrituriko ekipamenduak, ondare komunal naturalak, kulturalak eta digitalak, elkarzaintza eta babeserako nodoak, herri eta migrazio ekonomia; etxebizitza, komunikazio eta mugikortasun esperientzia amankomunatuak,... bokazio demokratiko, eraldatzaile, etiko eta solidarioa partekatzen duten ekimen guztiak saretzea litzateke helburua.

Udal eremuan bestalde, tokiko gizarte-sarean (auzo elkarteak, tokiko dendak, eskolak) eta publiko orokorrean, ESEk bultzatutako kontsumo-alternatiben ezagutza handitzeko, kontsumo arduratsua, etikoa eta eraldatzailea sustatzeko kanpainak bultzatu edo babestu ahal izango dira.

9. ESEk gizarte-behar guztiak hornitzeko aukera izan behar du, baita administrazio publikoenak ere

Udalerriek, sozialki arduratsua den erosketara eta kontratazio publikoa sustatu behar dute, ondasun eta zerbitzuen kontratazioan eta erosketan irizpide sozialak, etikoak eta ingurumenekoak lehenetsi behar dituztelarik. Horretarako, gizarte-klausulak sartzen direnean, lan-baldintza duinak, soldata-berdintasuna, insertzio soziolaborala, ingurumen-iraunkortasuna, finantzaketa etikoa, gertuko zirkuituak, genero-ekitate, kulturartekotasuna eta, azken batean, balantze sozialari aplikatutako ekonomia sozial eraldatzailearen irizpideak, gutxienez, aintzat hartu beharreko faktore kuantitatiboen maila berean hartuko dituzte kontuan.

10. Enpresak berreskuratzea eta enpresa erreleboa

ESEren hedapenean, krisian dauden enpresa pribatuak kooperatibak bezalako ekonomia sozialeko enpresa moduan langileek berreskuratzeke udal laguntza nahitaezkoa da. Horretarako, udalek berariazko funts ekarpenak egiteaz gain, sindikatuekin eta ESEren ordezkari diren erakundeekin batera, prozesuan zehar bidelaguntza eman beharko luke. Antzeko zentzu batean, enpresaburuak erretiroa hartu edota jabeak bertan behera utzi behar dituzten enpresen kasuan, enpresak

berrabiarazteko programak bultzatu behar dira, horretarako, formula kooperatiboan bidez jarduera ekonomikoa bermatzea sustatuko delarik.

11. Zerbitzu publikoen udalekotzeak eta kooperatibizazioak

Zerbitzu publikoen unibertsaltasuna eta udal-administrazioaren, langileen eta erabiltzaileen, bai eta ESEren ekimenen parte-hartzea eta adostasun partekatua bermatzeko, hitzarmen publiko-kooperatibo-komunitarioaren logikaren bidez, zerbitzu publikoen udalekotzea/munizipalizazioa bultzatu behar da. Berudalekotze-programak garatzen ez diren udalerrietan, edo beste batzuetan osagarri gisa, kooperatibizazioa bultzatu behar da hainbat arlotan, besteak beste, hondakinen kudeaketa, baso-kudeaketa, energia berriztagarriak, ura, zaintza-lanak, ekipamendu kulturalak, udal azpiegituretako elikadura zerbitzuak, etxebizitzaren birgaitzea, obra publikoa, ondare fisiko, natural eta inmaterialaren kudeaketa, turismo komunitarioa edo ekonomia zirkularra.

12. Burujabetzak: elikadura, energia, etxebizitza

Pertsonen bizimodu ona ahalbidetzeko, gure herrietan **Elikadura Burujabetzaren aldeko Gutuna** babestu behar da, egungo nekazaritza kapitalista eta elikadura globalizatutik, Elikadura burujabetzarantzko transizioa sustatu behar da, non, ezaugarri sozialak, ingurumenarekikoak eta gertutasuna balioan jarriko diren. Era berean, **Energia Burujabetzaren aldeko Sareak** proposaturiko udal proposamen energetikoa norberenganatu behar da, udalerriko biztanleek energia eskubideak bermatuak izan ditzaten, energia fosilak albo batera utzi eta energia berriztagarriak ezarriz, energia berriztagarrien ekoizpen eta kontsumo publiko-kooperatibo-komunitarioa sustatuz eta energetikoki iraunkorrak diren udalerririk lortu daitezkeen.

Azkenik, gizartearen arazo nagusienetako bati aurre egiteko – Etxebizitza duina eta eskuragarria aukeratu izatea –, beharrezkoa da udalerririk ahalik eta lurzoru publiko gehiena berreskuratu eta Babes Ofizialako Etxebizitzetara bideratzea, bai udal jabetzan eta alokairuan, baita etxebizitzaren erabilera eta jabetza eredu kolektiboak sustatuko dituzten kooperatibentzako erabilera-lagapena sustatuz ere.

13. Ezagutzaren gizartea demokratizatzeko, eremu publiko digitala kudeaketa komunitarioko gune gisa onartu behar da eta plataformako kooperatibismoa sustatu behar da

Teknologia berriak eta sarea eskuragarri izatea sustatu eta bermatu behar da; IKTen erabilera sozialak, kooperatiboak eta kolaboratzaileak sustatu behar dira; software eta hardware ireki/askearen erabilera eskusiboa eta didaktikoa sustatu behar da udal administrazioan eta bere eskumeneko eremu publikoetan; azpiegitura teknologiko irekiak, kudeaketa komunitarioan oinarrituak, deszentralizatuak, libreak eta neutralak babestu behar dira, ezagutza irekia eta baita lizentzia libre/irekiak eta praktika eta balore kooperatiboak sustatu ere, IKTetan finantziario eta inkubazio programa espezifikoen bidez. Plataformako kapitalismoaren nagusitasunarekin

lotutako monopolioak, gehiegikeriak eta prekaritatea saihestu behar dira, horren aurrean komunal digitalak, datu irekien ekimen publikoak eta plataformako kooperatibismoa babestu behar dira.

14. Udalerrien eraldaketa sozioekonomikoari buruzko kontakizuna sortu behar da.

Aldaketa materialak indartzeko, kontakizun kultural eta irudikari propioak behar dira. Nola? Tokiko komunikabide eta webguneetara ESEko ekimenei presentzia erraztuz, ekimenak ikusaraziz mapaketa eta gidekin, tokiko herri memoria kooperatiboa berreskuratuz, udal-aurrekontuetan herritarren parte hartzea erraztuz, kooperatibismoari lotutako erakundeen eta pertsonen izendegietan presentzia handiagoa izanez, tokian tokiko eta nazioarteko ikerketa, biltzar eta ekonomia sozial eraldatzailearen topaketak sustatuz, praktika eraldatzaileen elkartrukea sustatuz, ESE sustatzen duten udalerrien saretzea bultzatuz eta ESE azoketan, tokiko ESE ekimenen parte hartzea sustatuz.

15. Ekonomiaren eraldaketa feminista

Nahi dugun aldaketa sozioekonomikoa lortzeko, ezin dira alde batera utzi bizitzaren iraunkortasuna eta pertsonen ongizatea. Paradigma sozioekonomiko berria ekonomia feministen irizpideetan oinarrituko da, hau da, erreprodukzio-lanak ekonomia dira, eta, beraz, kapitalismoari alternatibak eraikitzeko, erreprodukzioa balioan jarriko da, bizitza eta zaintzak ekonomiaren erdigunean jarrita. Horretarako, funtsezkoa da zaintza-lanak – bai ordainduak, bai ez-ordainduak- aitortzea, ikusaraztea eta duintasuna ematea eta baita zaintzarako atzipenaren unibertsalizazioa bermatzea ere. Halaber, tokiko administrazioak ahaleginak egin behar ditu ekonomia feministetan, sentsibilizatzeko eta hezteko, bai eskolan, bai bizitza osoan zehar. Era berean, ko-ardura bermatzen duten tresnak erraztu eta emakumeek osatutako gizarte-ekonomiako eta ekonomia sozial eraldatzaileko enpresak eta taldeak babestu, eta horietarako berariazko espazioak eta egiturak sortzeko eginahalak egingo dituzte. Ekonomia sozial eraldatzailetik, ekonomia feminista egitura ekonomiko kapitalista guztia eraldatzeko espazio gisa ulertzen dugu, eta, beraz, baita emantzipaziorako espazioa ere, emakumeena bakarrik ez ezik, jendarte osoarena.